

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETA BIDE AZPIEGITUREN SAILA

**“Nerbioiko parke linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2024ko uztailaren 9an egindako bilkuran, 414/2024 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua” jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioen erantzuna. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presazko okupazioa deklaratzeko. Gastua baimentzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 7ko 267/2024 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaizen “Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua”ri, haren eraginpeko ondasun eta eskubideen hasierako banakako zerrrendari, eta hura jendaurrean jartzeko nahitaezko izapideari.

Jendaurrean egon den aldian, 1/000, 5/000, 8/000, 9/000, 10/000 eta 11/000 zenbakiekin identifikatutako finkei buruzko alegazio idazkiak aurkeztu dira. Ingurumen Ebaluazioaren Atalak eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak haien gaineko txostenak egin dituzte, zeinak Natura Ingurunearen Zuzendaritzak eta Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi baitituzte eta bere egin baititu Gobernu Kontseilu honek. Horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Alegazioei erantzun ondoren, eta Amurrioko Jabetza Erregistroak administrazio desjabetzaile honek eskatuta egindako jabari eta kargen ziurtagiriak jaso ondoren, onespina eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrrendari, Amurrioko Jabetza Erregistroak emandako ziurtagirien titulartasunak kontuan hartuta.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakoa dela adierazi behar dela. Ildo horretan, Administrazio honen Ingurumen Ebaluazioaren Atalak jakinarazi du Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LPSa behin betiko onetsi zutela Arabako Batzar Nagusiek martxoaren 8ko 9/2023 Foru Arauaren bidez.

LPS hori bi foru arauaren agindutik dator:

- 4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzkoa.
- 1/2012 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzkoa.

Urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauaren xedea da Arabako ibilbide berdeen araubide juridikoa arautzea, bai eta horiek eta haiekin lotutako azpiegiturak eraikitze, berreskuratzeko edo lehengoratzeko, aldatzeko, antolatze, erabiltzeko, kontserbatzeko, sustatzeko, deklaratzeko eta kudeatzeko arauak ezartzen dituzten xedapenak ezartzea ere.

Urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak honela definitzen ditu ibilbide berdeak: komunikazio azpiegiturak dira –ahal dela zerbitzutik kanpo erabat edo neurri batean dauden azpiegitura lineal zaharrak–, garai bateko abelbideak nahiz bide naturalak, erromesenak eta ibilbide historiko handiak edota interes ekologiko eta paisaia interes adierazgarrikoak direnak erabiltzen dituztenak, motorizatu gabeko joan-etorriak egiteko (oinez, bizikletaz, zaldiz, patinekin, beste batzuen bitartez). Bide horiek jendeak erabiltzeko proiektatu, egokitu edo eraiki dira, naturan aisia irisgarria, aisia ekologiko eta hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa sustatze aldera. Halaber, zeharkatzen duten lurraldearen natura ondarea eta ondare historiko eta kulturala lehengoratu, dinamizatu eta balioztatu nahi da.

LPSan, planifikatutako ibilbide berdeen barruan, Urduña eta Delika arteko trazadurari dagokion ibilbide berdea definitzen da, lehenetsun handiko ibilbide berde gisa, planaren lehen seiurtekoan (2022-2027) garatu beharrekoa.

Gainera, 2022ko abenduaren 19an lankidetzak hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiak, Aiaraldeko Berehalako Jarduketa Planean jasotako “Ingurumena eta Mugikortasun Jasangarria” trazio proiektuaren esparruan jarduerak egiteko.

Hitzarmenak alderdien lankidetzak aurreikusten du parke linealaren azpiegitura handitzeko, egokitzeko eta hobetzeko jarduketak finantzatzeko eta gauzatzeko, “Nerbioiko Parke Linealaren Garapena” ekimenaren barruan. Proiektatutako esku-hartzeen helburua da motorizatu gabeko mugikortasun jasangarria sustatzea, oinezkoena eta bizikletena, eta udalerrien arteko eta lurralde historikoen arteko konektibitatea sustatzea, automobilaren ordez bestelako mugikortasun moduak sustatzeko.

Ekintza esparru horretan, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren bitartez, Amurrioko Udaleko Zerbitzu Teknikoekin koordinatuta lan egin du “Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua” idatzeko.

Amaitzeko, LPSan eta hitzarmenean ezarritako programazioa betetzeko, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Sailak erabaki du Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua gauzatzeko bultzatzea. Horretarako, aipatutako proiektua onetsi du, motorizatu gabeko mugikortasuna (txirrindulariarena eta oinezkoena) garatzea ahalbidetuko duen xedearen barruan, erabilera publikorako, naturan aisia irisgarria sustatzeko, bai eta ekologiko-hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa ere.

Proiektuaren bidez, azpiegitura 1.800 metro linealetan egokituko da, Delikatik Urduñako mugaraino, eta ibilbidean Nerbioi ibaia gurutzatzeko pasabide bat eraikiko da.

Obra horiek eginda, Nerbioi ibaia den korridore berde hori indartu nahi da, eta ekologia eta paisaia konektagarritasunerako funtzionalitatea lehengoratu, bai eta erabilera publiko bigunerako egokitu ere, mugikortasun jasangarria eta herritarrak ibai ingurunera hurbiltzea eta harekin harremanetan jartzea sustatuko duen bizikleta bide baten bidez. Hiri inguruko eskalako parke gisa ulertzen da elementu hori, eskualdea egituratzeko eta eratzeko bokazioarekin.

Premiazko adierazpenaren izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, bat etorritik Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178.2 artikuluekin.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen ezarpena eta garapen egokia sustatu, bultzatu, zuzendu eta koordinatzeko, Autonomia Erkidegoko Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a) .8 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeei buruzko urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Erakunde honen barne eremuan, Foru Gobernu Kontseilua da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute honako hauek: Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Lege Araubidearen martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.1.c).7 artikulua.

Eraginpeko ondasun eta eskubideak desjabetzeko aurrekontua 120.929,47 euro da, Desjabetze Atalak jakinarazi duenez.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatuak eta Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. "Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua" jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei erantzutea, eta alegazio horiek baiestea edo ezestea, Ingurumen Ebaluazioaren Atalak eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak emandako informazioaren arabera.

Bigarrena. "Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektuak" eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea (eranskina).

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratzeko, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Deklaratzea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 120.929,47 euroko gastua baimentzea, Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko "50106. G/453501/60000507 Nerbioiko Parke Linealeko Bide Berdearen desjabetzeak" partidaren kontura, eraginpeko ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori lehen aipatutako aurrekontu aplikazioaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean.

Zazpigarrena. Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.


Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 16a

*Bide Azpiegituren zuzendaria*

**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**



Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila  
Departamento de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias

PROIEKTUA / PROYECTO  
Nerbioiko parke linealeko Bide Berdea (Urduña-Delika tartea) gauzatzeko proiektua  
Proyecto de ejecución de la Vía Verde del parque lineal de Nervión: tramo Orduña-Delika

I. ERANSKINA / ANEXO I  
Udal Mugartea / Término Municipal: Amurrio

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK			APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m <sup>2</sup>			Esp./Expte. 2024/2
		POLIGONOA	LURSAILA	DATOS CATASTRALES		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	EGUNA	
Nº FINCA	TITULAR	POLIGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m <sup>2</sup>	DEFINITIVA	TEMPORAL	DIA	HORA
13/000	Alejandro García Basarrate	10	1057	Zelaila / Pradera	2587			10/09/2024	10:00
3/000	Administrazio Batzarra/ Junta Administrativa: Delika	10	307	Mendia / Monte	740,27			10/09/2024	10:45
14/000	Alfredo Suarez Sanchez Ascensión Cuadra Mendilibi	10	1058	Zelaila / Pradera	4797			10/09/2024	12:00
7/000	Ignacio Ugarte Iparraguirre	10	314	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	134			10/09/2024	12:45
12/000	Isabel Ibañez Madaria	10	1056	Zelaila / Pradera	2085			10/09/2024	13:30
6/000	Miguel Angel Uzkiano Tellaetxe Leticia Uzkiano Bermudez Endika Uzquiano Bermudez Bruno Orive Arana Raimunda Orive Arana Carlos Orive Arana Juan Cruz Orive Arana Juan Cruz Arana Alonso Dionisio Arana Alonso Benjamin Arana Alonso Marcelina Arana Alonso Micaela Arana Ibarrola	10	313	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	261			11/09/2024	10:00
15/000	J.Maria Robles Lopez	10	25	Ez-emankor / Improductivo	60			11/09/2024	10:45
4/000	Álvaro Basarrate Urizar	10	308	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	456			11/09/2024	12:00
5/000	Miren Edurne Ugarte Usaola	10	312	Laborantzarako lurra / Tierra de labor	410			11/09/2024	12:45

FINKA.ZK.	Nº FINCA	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK			APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²		EGUNA	ORDUA
			POLIGONOA	LURSAILA	DATOS CATASTRALES		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA		
		TITULAR	POLIGONO	PARCELA	APROVECHAMIENTO	DEFINITIVA	TEMPORAL	DIA	HORA	
8/000		Matlde Cendegui Ugarte	10	316	Laborantzarako lurra /	3943		11/09/2024	13:30	
1/000		Juan Jose Larieta Cendegui	10	303	Tierra de labor					
2/000		Pedro Diaz de Lezana Ortega	10	413	Zelaiak / Pradera	354.54	1124	12/09/2024	10:00	
10/000		Maria Asunción Elejalde Arranz	10	360	Mendia / Monte	4420	4399	12/09/2024	11:00	
11/000		Pedro Abasolo Llairena	10	983	Zelaiak / Pradera	2268		12/09/2024	12:15	
9/000		Miren Yosune Ortiz Elejalde								
		Juan Antonio Larrea Sojo	10	1021	Laborantzarako lurra /	597		12/09/2024	13:00	
		Jesus Maria Larrea Sojo			Tierra de labor					
		Francisco Larrea Sojo								